

Denon artean

ARTEA ETA IRAUNKORTASUNA

ARTEA IRAUNKORRA IZAN DAITEKE? IRAUNKORRA DEN ZERBAIT ARTEA IZAN DAITEKE?

Artearen kontzeptuak (latinezko “ars”etik dator) gizakiak munduari, benetakoari zein irudizkoari, buruzko ikuspegi hautemangarria adierazteko egindako sorkuntzan lan guztiak hartzen ditu barne. Baliabide plastikoak, linguistikoak edo soinudunak erabiliz, ideiak, emozioak, pertzepzioak eta sentrazioak adierazteko aukera ematen du arteak. Erabili ohi ditugun hiztegietan aurki dezakegun definizio bat besterik ez da hori, baina, horrez gain, izan dezake arteak zerikusirik iraunkortasunarekin?

Saiatuko gara bi ideia horien arteko lotura aurkitzen.

Artearen tresna nagusietako bat sormena da; horren bidez, gizakiaren askotariko adierazpenak erakusten dira: emozioak, iritziak eta abar. Hori kontuan izanda, uste al duzu arteak gu naturarekin edo gizartearekin harremanetan jartzeko balio dezakeela?

Saiatu zure herritik edo hiritik hurbil dagoen artelanen bat gogoratzen eta zer arte-diziplinari dagokion identifikatzen (pintura, eskultura, arkitektura...). Badakizu

zenbat arte mota dauden? Ideia hori aldatuz joan da denboraren poderioz. Hala, teknologia berrien eraginez, adibidez, adierazpen artistikoen modalitate ugari dituzte gaur egun. Ikertu eta galdetu aniztasun horretaz eta saiatu ondorengo taula osatzen horietako batekin edo batzuekin. Kontuan izan edozein artelan sortzeko baliabide asko erabiltzen direla (materialak, energia, ura, garraioa eta abar), eta, ondorioz, zuzen gestionatu beharreko hondakinak sortzen direla.

ARTE DIZIPLINA	EZAGUTZEN DITUZUN ADIBIDEAK	ERABILTZEN DIREN MATERIALAK	SORTZEN DIREN HONDAKINAK	ZER EGIN BEHAR DA HORIEKIN?
GRAFIKA				
ARKITEKTURA				

LAN-PROPOSAMENA

Saiatu al zarete inoiz berrerabilitako edo birziklatutako materialekin objektuak sortzen plastikako eta/edo teknologiko eskoletan? Proposatu al duzue “artelanen” bat egitea 0 euroko aurrekontuarekin?

Gogoratu bete beharreko arauak eta zer hurrenkera duten: lehenik, erabili beharreko materialak MURRIZTU; bigarrenik, ahal den guztia BERRERABILI; eta hirugarrenik, BIRZIKLATU. Ziur aski ezagutzen zenituzten.

Lan egiteko modu hori dagoeneko erabiltzen baduzue, aurrera, jarraitu erabiltzen. Horrela ez bada, zuen irakasleekin hitz egin eta proposamenak egin ahal dizkiezue. Gogoz hartuko dituzte eta gauzatzeko erraztasunak emango dizkizute. Azken urratsa haxe izan daiteke: egindako lanekin erakusketa bat prestatu, beste gela batzuetako ikaskideak, senideak edo lagunak ikustera gonbidatu eta ikastetxearen webgunean edo erabiltzen duzuen blogen batean sartzea.

HELBURUAK

- Sentimenduak, emozioak eta aldarreak adierazteko modu desberdinak ezagutzera
- Gure inguruneke arte-adierazpenak identifikatu eta aztertzea
- Klasean “artelan” bat egitea berrerabilitako edo birziklatutako materialekin

LANDUTAKO KONPETENTZIAK

- Ikasten ikastea
- Hizkuntza-komunikazioa
- Gizarte eta herritartasuna
- Norberaren autonomia eta ekimena

